

Kattalin Miner

TABERNA-ZULOKO IRITZIGILEA

Zu zara etorkizuna!



rain gutxi, unibertsitatean irakasle batek huts egin, eta ordeko bat etorri zitzaigun egun hartako eskola ematera. Ezer prestatzeko denborarik ez eta egun hartako gaia alde batera utziz, gure etorkizunaz galdezka hasi zitzaigun banan-banan. Baten batek izan ezik, inork ez genuen argi erantzun gertuko etorkizun horren aurrean zein plan genuen. Nahiko ilun ikusten genuen dena, eta barre eta txan-txak egin genituen ohiko letretako ikasleonek etorkizun faltaz.

Irakasle hark ordea ez zuen horrelako jarrerarik onartzen, sutan jarri zen eta ez bat eta ez bi, letretako baztertu eta etsientzako *I have a dream* bertsoa eskaini zigun. Esan zigun etorkizuna gure eskuetan zegoela, unibertsitatetik at gizarteak behar gintuela, behar zituela gure mailako pentsalariak, analistak, kritikariak. Guk azaldu behar geniola munduari zer gertatzen ari zen, zergatik, eta errespetua lortu behar genuela. Isilik eta zintzo entzun genuen haren hitzaldia.

Baina eskolaren amaieran, diskurtsoa pil-pilean zuela, esan zigun, gakoa guk geuk sinestean zegoela eta hortaz, altxatzeko eta harekin batera “gu gara etorkizuna!” oihukatzeke eskatu zigun “ozenago! Ozenago! Ondo entzun nahi zaituztet!” batzuk tartekatuta. Nik zur eta lur alboko



DANI BLANCO

ikaskideak begiratzen nituen, *Osaba Samen* bertso ebanjeliko horren hitzak barre artean baina zintzo, errepikatzen zituzten artean. Nik, nire gauzak hartu eta alde egin nuen hura bizkor ahaztu nahian. “Zelako tontakeria, hori errepikatzeak dena konponduko balu bezala!”

Gaur ordea burura etorri zait egun hura; lagun batek nire etorkizun planen inguruan galdetu didan horretan. Kontatzen hasi zait gauzak pentsatu egin behar direla, planak izan behar ditugula... Nola, adibidez berak, karrera amaitu aurretik jada hirulau aukera pentsatuta zituen eta hori dela azken finean, orain horrelako postu egonkor bat izatearen arrazoia eta poztekoa dela, ezta?

Ni, ez naiz poztu, ez, ez naiz hain pertsona ona, baina zer pentsatua eman dit. Hala ere, “lana ez da dena” errepikatu diot nire buruari eta lasai amaitu dut eguna; baina egia esan behar badut (eta gure artean gera dadila), hortzak garbitu ostean (eta inork ikusten ez ninduela ziurtatu ondoren), baxu-baxu eta disimuloz, “zu zara etorkizuna!” errepikatu diot birritan ispiluari.

Eta bale, patetikoa dela, baina aizue, ez nazazue epaitu, zeren krisi garaia denok izutzen gaitu, eta azkenean, denok bezala, batzuetan nik ere lanpostu on horregatik poztu nahiko nuke. Besterik ez. ■

‘Lana ez da dena’ errepikatu diot
nire buruari eta lasai amaitu dut
eguna; baina egia esan behar badut
(eta gure artean gera dadila),
hortzak garbitu ostean
(eta inork ikusten ez
ninduela ziurtatu ondoren),
baxu-baxu eta disimuloz,
‘zu zara etorkizuna!’
errepikatu diot
birritan ispiluari



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276
Bizkaia pasealekua, 9
Arrasate (Gipuzkoa)